

- ➔ **5 igandea**  
08:00etan.- **Mendi irteera: Zumarraga-Usurbe-Beasain.** Aizkorri Mendizale Elkarrekin antolatuta.
- ➔ **8 asteazkena**  
18:00etan.- **Meza eta Erromeria, txistulariek lagunduta.** Loinazko Ama Birjiniaren ermitan.
- ➔ **9 osteguna**  
19:00etan.- **Igartza bekaren. 13. sari banaketa.** Igartzan.
- ➔ **10 ostirala 11 larunbata 12 igandea**  
Igartzako Loinatz auzoko jaiak.
- ➔ **13 astelehena**  
15:30ean.- **Toka eta igel jokoak eta karta-jokoak.** Erretiratuaren etxean.
- ➔ **18 larunbata**  
16:30ean eta 18:30ean.- **Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia.** Antzizar kiroldegian. Antolatzailea: Chernobileko lagunak.
- ➔ **19 igandea**  
08:00etan.- **Mendi irteera: Besaide.** Aizkorri Mendizale Elkarrekin antolatuta.  
14:00etan.- **Adinekoen bazkaria.** Lierniko Mujika jatetxean.
- ➔ **24 ostirala**  
09:30etan eta 11:00etan.- **Ikastetxeentzako txotxongilo emanaldia** Enkarni Genuaren eskutik. Usurbe Antzokian.
- ➔ **24 ostirala 25 larunbata 26 igandea**  
Arana-Bideluze auzoko jaiak.
- ➔ **24 ostirala 26 igandea**  
Lazkaibar auzoko jaiak.
- ➔ **25 larunbata**  
08:00etan.- **Mendi irteera: Kanpaldia Pirineotan.** Aizkorri Mendizale Elkarrekin antolatuta.
- ➔ **26 igandea**  
09:00etan.- **Txirindularitza proba: XXIX. Beasain proba, udazkeneko kriteriuna.** Helmuga: Nafarroa etorbidea.

### IGARTZAKO JAIK 2010

**OSTIRALA 10**  
19:00etan.- Txupinazoa, buruhandi eta txistulariek.  
20:00etan.- Igartzako Loinazko III. Ardo dastatzea.  
20:30etan.- Txalapartariak.  
22:30etan.- Kontzertuak.  
23:00etan.- DJ Olarius gaztetxean.  
23:30etan.- Igartzako Loinazko IV. Txapel jaurtiketa.

### LARUNBATA 11

11:00etan.- Marrakzi tailerra eta hamaiketako.  
12:00etan.- Beasaingo dantzarien irteera San Martin Plazatik.  
12:30etan.- Beasaingo dantzariak Igartzan.  
13:30etan.- Sagardo eta odolki dastatzea Dolarean.  
15:00etan.- Futbito txapelketa Loinazpe ikastetxean.  
16:00etan.- Mus txapelketa Kattalin erretegi.  
17:00etan.- Haurrentzako puzgarriak eta mozzorro tailerra.  
17:30etan.- Igartzako Loinazko II. Patata tortila lehiaketa.  
18:00etan.- Erromeria AIKO taldearekin.  
19:00etan.- Merienda guztiontzat.  
21:00etan.- EUSKAL KANTU afaria txosna gunean.  
22:00etan.- Kontzertuak gaztetxean.

### IGANDEA 12

12:30etan.- Ordiziako Laguntasuna Errondaila Kikara tabernatik.  
17:30etan.- Herri kirolak.  
19:00etan.- Malabaristen emanaldia.  
20:00etan.- Buruhandiak.

### ARANA BIDELUZEKO JAIK 2010

Irailak 24, ostirala  
18:00etan.- Buruhandiak eta txistulariak.  
19:00etan.- Txokolate jana umeentzat.  
20:00etan.- Disko-festa.  
24:00etan.- Disko-festa.

### Irailak 25, larunbata

12:30ean.- Baxoerdi edate herrikoa.  
19:00etan.- Antzerkia haurrentzat.  
20:00etan.- Euskaraokea.  
24:00etan.- Kontzertua.

### Irailak 26, igandea

12:00etan.- Toka erretiratuentzat.  
12:00etan.- Baxoerdi edate herrikoa.  
12:00etan.- Herri kirolak umeentzat.  
18:30ean.- Pailasoak.  
19:00etan.- Luntxa Aitzgorri Mendizale Elkartean, Arana, Bideluze eta J. M. Iturriotz kaleetan jaio eta bizi diren erretiratuentzat.

### ERAKUSKETA.

Antolatzailea: Argizpi argazkizale elkarte.

➔ **10etik 26ra**

Argazki erakusketa: Argizaiola 2010.  
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

## 2010-2011rako matrikulazioak



### BEASAINGO BERTSO ESKOLA

**Matrikula epea:** Irailaren 7tik 25era  
**Informazio gehiago:** 943 02 80 63.



### MUSIKA ESKOLA

**Matrikula epea:** Abuztuaren 31tik irailaren 4ra.  
**Informazio gehiago:** 943 02 81 05,  
**Ordutegia:** 09:00-13:30.



### UDAL EUSKALTEGIA

**Matrikula epea:** Irailaren 1etik 15era.  
**Ikastaroa:** Ohiko eskaintza (aurrez aurreko klaseak edo autoikaskuntza) eta 4. maila.  
**Informazio gehiago:** 943 02 81 00.  
euskaltegia@beasain.net



### ESPERIENTZIA ESKOLA

Ikastaroak urritik ekainera izango dira, astean hiru egunez.  
**Matrikula epea:** Irailaren 31ra arte.  
**Ikasleak:** 50 urte baino gehiago dituzten Goierriko eta Urola Garaiko pertsonak.  
**Informazio gehiago:** Goieki 943 16 15 37 eta Uggasa 943 72 58 29.



### LUDOTEKA

**Matrikula epea:** Irailaren 13tik urriaren 1era.  
**Prezioa:** 60 euro/urte osoa.  
**Informazio gehiago:** Irailaren 13tik urriaren 1era Ludoteka zabalik egongo da gune hori, egitaraua, baliabideak eta hezitzaileak eza-gutzeko. Telefonoa: 943 02 80 66 (deitu 17:00etatik 18:30era) edo aisihezi@hotmail.com helbidera.

### Adineko pertsonen eguna (19, igandea)

Egunean parte hartzeko izen emate epea 6tik 15era izango da, Udaleko Harrera Bulegoan (08:00etatik 13:00era).

### Día de las personas mayores (domingo 19)

El plazo de inscripción es del 6 al 15 en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento (de 08:00 a 13:00h).

Kultura informazio gehiago: [www.beasain.net](http://www.beasain.net)

**SEPTIEMBRE 2010**

# Beasain

## egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA **2010eko iraila 22**



Beasaingo Udalak



Argazkia: Iñaki Erauskin

L.G. SS-1284-2008

3717-010

Paper birziklatuan egina

# Igartza ezpata dantzen eszenatoki

4

**JAIK**  
Beasainmendiko festak tradizio bihurtu dira 30 urte eta gero.

6

**KIROLA**  
Beasain Kirol Elkarrekin zuzendaritza batzordea berri du.

8

**BERRIKUNTZA**  
Lortek, teknologia berrietan aitzindari.






"Astigarretako bizilagunak" - 1953. Alzuri



"Beasaingo euskara proiektua" - 2007. Asier Sarasua



"Errekarte auzoko eraikinak". Jone



"Arriaran" - 1916. Indalecio Ojanguren

## Beasain eta

## beasaindarrak!



"Lasterketa irteera" - 2009. Xabier Eskisabel



Puedes colgar tus fotos

[www.guregipuzkoa.net](http://www.guregipuzkoa.net)

Algunos beasaindarras ya lo han hecho.

Éstas son algunas de las fotos que han subido.

Animatu zaitetz!

"Loínatz taberna" - 2008. Xabier Eskisabel



"Punk Bacharach" - 2009. Xabier Eskisabel



"Igartzako dantzariak" - 2009. Xabier Garmendia

### Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



### OPORREN BUELTAN!

Eragin hori arrazoi, Foru Aldundia-ekin hitzartu dugu Kudeatuz ekimenaren bitartez herritarren eskuartzea bultzatzea aparkalekuen gaia bideratzeko. Horretarako, herritarren partaidetza prozesuetan eskarmentua duen Prospektiker enpresa jarri du gure esanetara Foru Aldundiak.

Udalak ekimen horren ondorioak bere egingo ditu, horiek gauzatuz.

Ale honetan ere auzo batzuetako festen berri ematen da, Usurbe mendiko jaiena bereziki. Usurbe magaleko baserritarrek auzolanean iraileko aurreneko asteburuan jai herrikoia ospatzen dituzte. Kaltetar askok ere bereak ditu Usurbeko gurutzepean alaitasunez ospatzen diren jai hauek.

Etxebizitza babestuen inguruko informazioa ere zabaltzen da. Udala, Beasain Lantzen udal sozietatearen bitartez, 21 etxebizitza babestu eraikitzen laster batean hasiko da. Honen berri zehatza uneoro emango zaie herritarrei.

Enpresen lana makaltzen ari den une honetan, LORTEK Teknologia zentroa indartzen ari da eskualdean goierriko enpresen ekimenez. Bide horretatik dator gure industria sarearen berritze eta indartzea, eta Beasaingo Udala ere hor dago Goierri Fundazioaren eskutik horrelako ekimenak bultzatzen eta babesten.

## Ikasturte berrian, eskolara oinez



Ana Alsá, La Salle Ikastetxeko irakaslea

"Ekimena oso positiboa izan da. Ni lgartza auzoan bizi naiz. 70eko hamarkadan beti etortzen ginen erdigunera oinez. Beasain erdian gune industrial handi bat zegoen, baina gu ohitura geunden oinez etortzera. Azken hamarkada honetan zerbait penagarria gertatu da: helduak oinez ibiltzen diren bitartean, umeei edonora autobusez joateko ohitura hartu dute. Hori tristea iruditzen zait, jubilatuek kalean oinez topatzea eta umeak, berriz, autobusean. Nahiz eta herria luzea izan elkar ezagutzen dugu eta eskolara oinez joateko baldintzak betetzen dira, batez ere segurtasun aldetik. Udaleko Agenda 21ekoek "Eskolara Oinez" ekimena abian jarri zutela entzutean asko poztu nintzen. Gure auzoan arrakasta handia izan du eta bidean jende asko elkartu gara. Ederra da, esaterako, aiton-amonak atarian umeei ikustea. Gazte- txoak eskolara oinez joateak bizitasuna ematen dio herriari. Gainera, kirola egitea ere garrantzitsua da beraientzat. Hurrengo ikasturtean jende gehiago animatzea espero dut".



Maria Ocio, La Salle Ikastetxeko ikaslea

"Nire gurasoek biek egiten dute lan, baina ni lagun giroan joaten naiz eskolara. Askok gustatzen zait lagunekin hitz egiten joatea, gainera jende



Irati Valdivielso, estudiante de Andramari Ikastola

"Me gusta mucho ir andando a la ikastola. Antes casi todos solían ir en coche, ahora con el tiempo la gente se ha ido animando y somos muchos los que

asko ezagutu dut aurtan, beste geletako neska-mutilak. Horrez gain, ingurumenari laguntzen diogu eta pozgarria da. Eskolara oinez goazela, espaloietan sarri topatzen ditugu autoak gaizki aparkatuta, eta errieta egiteko gogoia ematen du, oinezkoak gehiago errespetatu behar dira. Datorren ikasturtean berdin jarraituko dut, eta ilusio handia egiten dit berriz ere lagunekin eskolara joateak. Oso ondo moldatzen naiz nire kabuz, gurasoek badakite oso pozik joaten naizela eskolara, irakasle eta ikasleekin. Beraiek ere poztu egiten dira ni horren gustura ikustean".

hacemos el recorrido a pie. Aún así, el primer día de la iniciativa no había casi nadie en nuestro recorrido, y vimos cómo pasaban algunos alumnos en coche. No fue un comienzo exitoso. Me gusta el ambiente que se crea, le da vida al pueblo. Además, te fijas en detalles que antes ignorabas, en los edificios y su arquitectura, por ejemplo. Aconsejaría a los padres que reflexionen sobre el uso del coche, y que animen a sus hijos e hijas a ir andando a la ikastola. Entiendo que en algunos casos es difícil, ya que no viven en el centro, pero otros muchos sí que pueden. Espero que el curso que viene venga más gente, nos lo pasamos muy bien".



Beasain  
egunez egun

## AGORTAKO FESTAK

Los vecinos de Beasainmendi crearon en 1980 las fiestas de Agorta con el fin de tener un día de festejo al año para todos los vecinos de la zona. Lo que al principio fue una iniciativa, hoy se ha convertido en tradición, en un día en el que la amplia participación y el ambiente festivo no pasan desapercibidos. La comida popular, la romería o el cross son algunos de los alicientes. El próximo domingo tanto vecinos de la zona como visitantes se reunirán, en un paisaje idílico, para disfrutar de un día lleno de actividades y diversión. Ondo pasa!



Agortako festak ate joka daude jada. Aurtengoa, besteetan bezala, ekintzaz jositako izango da. Beasainmendi gerturatzen direnek ez dute aspertzeko betarik izango, egun guztian zehar gozatzeko hainbat ekitaldi izango dituzte eta. Hala, goizeko 10:00etan suziriak botako dituzte. Ondoren, 11:00etan, Usurbeko gurutzan meza ospatuko dute eta hori amaitu ostean, salda eta txorixoa izango dituzte dastagai. Horixe da eguneko beste protagonista: janaria. Auzo honekako biztanleak –80 bat biztanle dira 30 baserrian banaturik– buru-belarri sartzen dira ospakizunean eta sekulako bazkaria prestatzen dute 380 pertsonarentzat! "Arrain zopa, entsalada, sahieskia, txuleta eta piperrak prestatzen ditugu, besteak beste. Guztiak kalitatezko elikagaiak, oso gustura bazkalzen dugu guztiok batera", dio Erauskin baserriko Enkarni Arrietak.

## Beste osagaiak: bertsoak, kirola edo jolasak

Adin eta gustu guztietarako jaia izaten da Agortakoa, era askotariko jarduerak biltzen ditu eta. Mendizabal eta Irazu bertsolariak izango dira bertso-saioa es-



kaintzen bazkal aurretik eta ondoren. Iñaki Azurmendi eta Arkaitz Jauregi aizkolariak ere bertan izango dira, eta kirol festa borobiltzeko, urtetik urtera ospe handiagoa hartu duen krosak korrikalari asko bilduko ditu. "Lasterketa auzoan hasi eta Agortaraino igotzean datza, guztira 5 km. Aurten 50 parte-hartzaile izango ditu, horietatik 15 beasaindar. Azken edizioetan parte hartzaile kopuruak gora egin du, korrikalari trebeak etortzen dira hona, froga ederra dela esaten dute guztiek", dio Joxean Olano antolatzaileak. Gaztetxoek ere jolas ugari izango dituzte arratsaldean. Orduan izango da auzokideak dantzan jartzen dituen erromeri handia ere. Gainera, urtero Beasainmendiko pertsona edadetuenari omenaldia egiten zaio. Aurten Juan Lasa Urteaga izango da omendua, 80 urterekin.



Urtzi Lasa, Maria Olano, Endika Sánchez eta Nicolas Brämer

"Festa antolatzen laguntzen ibiltzea gara, eta eskolara ez badugu joan behar, hurrengo egunean ere jasotzen laguntzen diegu nagusiei. Jokoak ditugu gustukoak: zaku lasterketa, aulki jokoa, globoak hankarekin lehertzea... eta askoz gehiago. Gainera gu guztiontzat sariak daude, gozokiak eta maskarak, esaterako".



Xabier Lasa eta Joxean Olano, auzokideak

"Nabarmenezkoa da Beasainmendiko biztanleok festak antolatze aldera egiten dugun lana. Leku guztietan egiten dira jaiak, baina Euskal Herrian gurea bezalako erromeria jator gutxi daude. Jende asko etortzen da inguruko herrietatik, antolatzen dugun dantzaldiak erakarrira".



Juan Lasa Urteaga, omendua

"Basarte Bekoa baserrian bizi izan naiz beti. Aurten ni omenduko naute eta oso pozik nago, polita iruditzen zait detaile hori izatea. Nire gazte garaian hemen ez zegoen festarik, Beasainen eta inguruko herrietako jaietara joaten ginen, festetara edo futbol partiduak ikustera. Egia esan, gurea den festa bat izateak auzoko giroa alaitu egiten du. Aurten ere oso ondo pasatuko dugu".

Beasain  
egunez egunBeasain  
ezpata dantzarien topaleku

Argazkia: Iñaki Erauskin


**El próximo 11 de septiembre, por cuarto año consecutivo, dantzaris y músicos partirán del Ayuntamiento al palacio de Igarza para representar los bailes recuperados y que forman parte del día de los Dantzaris de la Cofradía de Igarza. Como novedad, y con motivo de la inauguración del conjunto monumental que se celebrará este año, los organizadores han querido dar al evento un tinte especial: ese día, los dantzaris más hábiles provenientes de 15 formaciones de Euskal Herria interpretarán su propio ezpadantza.**

Hilaren 11n eta laugarren urtez jarraian, Igarzako Dantzarien Kofradia osatzen dutenek, herriko udaletxetik hasi eta Igarzako Jauregiko bidetara ekingo diote. Bertan garai bateko dantza eta usadioak plazaratuko dituzte. Jabego aldaketan dago errepresentazio horren jatorria. Baina aurtengoa jauregipean egingo den dantza kutsu berezi bat izango du. "Igarza multzo guztia inauguratuko den urte honetan zerbait berezia egin nahi izan dugu. Euskal Herriko 15 dantza taldetako –Bizkaiko bi, Nafarroako hiru eta Gipuzkoako 10– ordezkari edo dantzari trebeek gurekin kapitainaren zatia (ezpata txikiekin egiten dena) dantzatuko dute, bakoitza bere jantziekin eta banderekin, noski. Bertara gerturatzen diren herritarrek eta bisitariek Euskal Herrian diren hainbat ezpata dantza gertutik bizitzeko eta ezagutzeko aukera izango dute. Oso ikusgarria izango da", azaldu du Kofradiako Mikel Sarriegik.




**Joseba Juarez, Aurtzaka Dantza Taldeko irakaslea**

"Nire laugarren aldia izango da honekin. Mikel Sarriegiren ideia izan zen garai bateko dantzak eta usadioak berreskuratzea. Ekimen hau antolatzearen proposamena luzatu zue-nean, oso ideia ona iruditu zitzaidan. Aurtengo edizioan, gainera, Euskal Herri mailan dauden hainbat ezpata dantza ezagutzeko aukera izango dugu. Bakoitzak bere ezpata dantza du, eta guk gurea edukitzea oso polita da. Festa ederra izango da, gainera dantzari beterranoek ere hartuko dute parte".



**Miren Saiz, Aurtzaka Dantza Taldeko kidea**

"Dantzatzen dudana bigarren aldia izango da. Jende asko biltzen da plazan Igar-tzaren bueltan ikuskizunaz gozatzeko. Guretat xarma berezia du egun horrek, izan ere, taldekook beterranoekin bat egiten dugu eta giro oso berezia sortzen da. Gure dantza taldearen alde politena toki eta adin desberdinetako jende osatuta egotea da, oso aberasgarria da".



**Javi Arroyo, Dantzaria ohia**

"Ikaragarriko ilusioa egiten dit Igarzaren ospatzen dugun egun horretan parte hartzeak. Gainera, niretzat berri ere dantza egiteko aukera paregabea da; urtean behin bada ere, dantzarekin oraindik lotuta nagoela sentitzen dut. 35 urte baino gehiago eman ditut dantzari, nire bizitzan garrantzi handia du. Harro sentitzen naiz tradizioa berreskuratzeak ahal-egiten duen parte hartzeaz. Eguna iristeko irrikitan nago, oso polita izango da".



# Nueva etapa para nuestro fútbol



Nueva directiva del Club Deportivo Beasain.

El Club Deportivo Beasain estrena Junta Directiva. El nuevo grupo, que se constituyó el pasado junio y que está conformado por 12 personas, ensalza la labor que ha hecho la anterior junta durante los 21 años al mando del club beasaindarra. Hemos estado con algunos de los miembros de la nueva agrupación: el presidente Koldo Zaldua y uno de los vocales, Iakes Gibelalde. Los dos se muestran ilusionados con esta nueva andadura. Concedores de los entresijos del fútbol, han creado un equipo regional en aras de dar continuidad a los jugadores locales. Zaldua y Gibelalde también piden el apoyo de los beasaindarras de cara a esta nueva temporada, ya que tienen claro que, todos unidos y defendiendo en conjunto nuestros colores, se puede conseguir algo muy grande.



2010-2011 denboraldiko 3. mailako taldea.

Iakes Gibelalde (Batzordekidea) eta Koldo Zaldua (Lehendakaria).

**Zuzendaritza estreinatzen du Beasain Kirol Elkarteak.**

**Koldo Zaldua:** Bai, joan den ekainaren 10ean batzarra izan genuen eta gu bakarrik aurkeztu ginen. Egia esan, aurreko taldea 21 urtez aritu dela kontutan izanda eta egin duten lana ikusita, ez dugu erronka makala.

**Batzorde gisa helburu zehatzik finkatu duzue?**

**Koldo:** Bai. Hasteko talde erregional bat sortu dugu jokalariei jarraipen bat emateko. 3. mailako taldea indartu nahi dugu baita ere. Bestetik, beheko taldeetan dauden jokalariek beren aukeretan gehiago sinetsi dezaten nahi dugu, kalitatea badute eta. Horretan buru-belarri egingo dugu lana.

**Iakes Gibelalde:** Gazteen mailara iristen direnean askok utzi egiten dute taldea, hori da daukagun arazo handiena. 18 urte bete eta 3. mailarako saltoa ezin dutela egin ikustean, utzi egiten dute futbola. Horri buelta nahi diogu eman, irtenbide bat aurkitu. Jokalari horiek elkartearen mantentzeko erregional mailan jokatu duen talde bat sortu dugu. Hurrengo denboraldian beste talde bat sortzeko asmoa ere badugu.

**Koldo:** Gazteen eta 3. mailaren artean talderik ez zegoenez, jokalari asko beste talde batzuetara joan ziren. Zaila da horiek bueltan ekartzea, baina etorkizunari begira neurri hau ona izango dela uste dugu.

**Zein da zuzendaritza berriaren lan ildoak?**

**Koldo:** Egia esan guztiok, modu batera edo bestera, futbolarekin oso lotuta ibili gara beti, gehienak jokalariek izandakoak gara. Nire kasuan, elkarte talde guztiak gertutik ezagutzen ditut, baita oinarritzko futbola ere. Ez da ezer berria niretzat, futbola gertutik bizitzen dut eta.

**Iakes:** Nire ustez ona da zuzendaritza futbola horren gertutik bizi duen talde bat egotea, barerutik ezagutzen dugun zerbait da eta horrek beste ikuspegi bat ematen digu erabakiak hartzerako garaian.

**Koldo:** Dena den, batzorde berria izanik, ez genuen aurreko taldeak egindakoaren gainean aldaketa handirik egin nahi. Piskanaka helburuak zehazten eta lantzen hasiko gara.

**Herritarrek Beasain Kirol Elkartearen koloreak sentitzen dituztela esango zenukete?**

**Koldo:** Nik uste dut baietz. Dena den, kolore horiek gehiago barneratzea nahi dugu. Beasaindarrek gure taldeak animatzea eta bultzatzea nahi dugu, jokalariek eta herritarrek bat egin, eta elkarrekin kolore horienatik borrokatzea dezaten. Halaber, gure lehen taldea erreferentzia izatea nahi dugu.

**Iakes:** Azken urteotan lan polita egin dute gure taldeek, kalitatea egon badago eta hori nahi dugu sustatu. Gauza handiak egin daitezke elkarte honetan.

**Zer garrantzi du futbol talde batean batzordeak, entrenatzaileak eta jokalariek?**

**Iakes:** Futbola jokalariena da, beraiek dira giltza. Baina beraiek gogotsu egoteko eta zelaian duten guztia emateko gure babesa ere sentitu behar dute. Gure lana beraiek gustura egon



Aurtengo denboraldiko kadeteen neska taldea.

daitezen dago bideratua, zuzendaritzak eta entrenatzaileak saiatu behar dute jokalariek duten guztia ematea. Eta ez bakarrik gurea, beasaindarren inplikazioa ere funtsezkoa da.

**Diru-laguntzak beharrezkoak dira zuena bezalako kirol elkarte bat aurrera ateratzeko?**

**Koldo:** Oso garrantzitsua da diru-laguntzak jasotzea. 300 jokalaria daude Beasaingo Futbol Elkartearen; eta entrenatzailea, zuzendaritza eta beste zenbait pertsona kontutan izanez gero, 350 bat gara guztira. Zifra horri eusteko noski dirua behar dela. Bestetik, 3. mailako taldea postu gorenetan edukitzeak gastu bat dakar. Gure lana aurrekontuko dirua ahalik eta hoberen kudeatzea da, horretan ari gara.

**Elkartearen lehenengo taldearen eta azpikoaren artean lotura bat lortu nahi duzue baita ere.**

Bai, hala da. Gure xedea 3. mailako eta erregionaleko taldeen artean lotura edo konexio bat sortzea da. Horretarako entrenamendu bateratuak nahi ditugu antolatu. Maila bateko eta besteko jokalarien arteko elkarlana sustatu behar da. Modu honetan, erregionaletik 3. mailara salto egiten dutenek oinarri bat izango dute, ez dira hutsetik hasiko.

## 260 pertsonak egin zioten aurre Ehunmilen erronka gogorrari



El pasado mes de julio se celebró el ultramarathon de montaña "ehunmilak" organizado por el club de montaña Arrastaka, de Beasain. El nombre de la prueba, alude directamente a la tremenda distancia de la prueba, concretamente 167 kms. El recorrido atravesó los montes de las comarcas de Goierri, Tolosaldea, Urola-Kosta, y Urola-Garaia, discurriendo en gran parte por los parques naturales de Aralar y Aitzgorri e incluyó la ascensión de las cimas de Txindoki (1.346 m), Ganbo (1.402 m), Aizkorri (1.528m), Izaspi (967m) y Ernio (1.072m) entre otras: en total, 167 km. En esta 1ª edición participaron 260 marchadores masculinos y 10 féminas. Una participación no muy alta, seguramente por la dureza de una prueba. Muestra de ello es que menos de la mitad de los participantes concluyeron en el tiempo establecido de 48 horas. Aunque el vencedor fue Imanol Aleson (24h y 26 minutos), todos los participantes son triunfadores por haberse enfrentado a esta prueba de resistencia tan dura.


### "Esperientzia ahaztezina izan da"

→ Imanol Rezola, parte-hartzaile beasaindarra.

"Parte hartzen nuen lehenengo aldia zen. Hemen inguruan ez da horrelako froga gogorrik egiten. 167 kilometro eta 36 ordu mendian ibili izana ikaragarria izan zen niretzat, gogorra baina asko bete nauen esperientzia. Talde oso ona elkartu ginen gainera. 300 partaidetik erdiek ez zuten amaitu. Niretzat amaitzea eta 30. postuan geratzea izugarria izan zen. Froga hau desberdina da, geratzen zaizun sententzia ez duzu beste edozeinetan sentitzen"

De izquierda a derecha: Los beasaindarras Charly De Almeida e Imanol Rezola.

**Xabier Larrion, Bi Handiak probaren irabazlea.**



"Oso ondo antolatuta zegoen dena, nahiz eta eguraldiak ez zigun lagundu. Gozatu nuen, eta gustura ibili nintzen, motibatuta. Hori bai, janean eta edanez, diskuidatu gabe. Jaengo beste partaide batekin egin nuen ibilbidea, ni joan nintzen eritimoa markatzen eta eskerrak eman zizkidan. Nik berriro antolatzaileak berriro egitera animatuko nituzke, baina noski, ikaragarritzko lana da horrelako proba bat antolatzea, hiru egun dira".

**ZORIONAK guztioi!**



Goierriko Berrikuntza Gunean askorentzat ezezaguna den ikerkuntza zentro bat aurkitzen da: Lortek. Joan den maiatzetik IK4 ikerkuntza eta garapen taldeko kide da eta egun lotura teknologien merkatuan lidertzan dabil Europa mailan. Lortekek bertako eta kanpoko enpresen ekoizpen prozesuan hobekuntza teknologikoa bilatze aldera egiten du lan. Eta ez hori bakarrik. Goierriko ekoizpen tradizioa oinarritzat hartuta, eta ezaugarri horri egungo teknologia berriak aplikatuz, eskualdea merkatuan aitzindari izatea du xede.

# LORTEK, ideas que unen

Situado en el Polo de Innovación GOIERRI, Lortek es un centro de investigación de carácter innovador y de gran dominio en tecnologías de unión que se caracteriza por ofrecer soluciones avanzadas, aplicadas y completas. En definitiva, es “un socio tecnológico”. “Somos un aliado para las empresas, ya que nos comprometemos y nos involucramos en sus necesidades, para desarrollar juntos las mejores y más rentables soluciones. Tenemos la vocación de mantenernos como un centro pionero y a la vanguardia de técnicas de unión. A tal efecto, dedicamos un porcentaje importante de nuestro tiempo a la investigación en nuevas tecnologías relacionadas con procesos, diseño, materiales, automatizaciones y control de uniones. Indicar también que la relación directa que tenemos con la universidad nos ayuda de manera positiva al desarrollo del centro”, comenta el gerente del centro José Antonio Etxarri.

## Goierri, bateratze teknologietan aitzindari

Gure eskualdearen bokazio industrial medio, bertako enpresentzat soluzio onenak aurkitzen dihardu Lortek. “Hemengo enpresa garrantzitsu askok lotura prozesuak erabili dituzte beren ekoizpen zikloetan. Guk tradizio horri balio erantsi bat nahi diogu gehitu, teknologia berriak eskaintzen dituzten abantailena, hain zuzen”, berretsi du Lorteko Teknologia Zuzendaria den Alberto Echeverriak. Guztira 50 langile ditu zentroak, horietatik 25 goierritarrak. “Lorteken aktibo nagusia pertsonak dira, euren formazioa funtsezkoa da. Hemengo gazteek aukera paregabea dute hemen beren ezagutzak ikerkuntzaren eta berrikuntzaren inguruan zabaltzeko, beren etorkizunean urrats handi bat emateko”, nabarmendu du Jose Antonio Etxarrik.

Los servicios de Lortek están dirigidos a la incorporación de la tecnología y a la innovación en el tejido industrial en base a las siguientes actividades:

- ➔ Desarrollo de Proyectos de I+D.
- ➔ Servicios Tecnológicos a empresas.
- ➔ Vigilancia Tecnológica.
- ➔ Formación y Difusión Tecnológica.

## Beasaindarrak lorteken



### Iñaki Kortaberria, ingeniaria

“Urte bete daramat Lorteken. 20 bat lagun sartu ginen Goierritik, bertan 18 urte eman nituen. Lehen ingeniarritza lanak egiten nituen, I+G arloetan gutxi sakontzen genuen. Gaur egun oso garrantzitsuak eta beharrezkoak dira ikerketa eta garapena. Goierriko industrialki potentzial handia du eta Lortek bezalako zentro bat gurean izatea aukera bat da, bai pertsonalki eta baita eskualdearentzat ere. Berrikuntza Gunea eta Lortek bezalako iniziatiba berritatzailak bultzatu behar dira”.



### Anartz Ayesta, ingeniero

“Estudié Ingeniería Industrial y el proyecto de fin de carrera lo realicé en Holanda. Llevo un año trabajando en Lortek. Diseño, desarrollo y realizo simulaciones de procesos de unión mediante el ordenador. Me encuentro muy a gusto aquí, estoy cerca de casa y el ambiente de trabajo es muy bueno. En comparación con el pasado, ahora, antes de empezar con el proceso de producción, pensamos en cómo optimizar esa producción pensando, analizando, recopilando información e investigando. Estudiamos y hacemos un seguimiento de lo que se hace en el extranjero en el ámbito de la investigación, ya que vemos necesaria esa perspectiva”.



“El pasado julio se firmó el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Beasain y la Diputación Foral”

“El Consistorio quiere poner en marcha un proceso de participación ciudadana en torno a la problemática de los aparcamientos en Beasain”

## “Helburua da herrietako gobernu sistemen inguruko hausnarketa egitea eta herri-tarrak inplikatzeara”

Olatz Errazkin, Prospektikerreko aholkularia

### Zer da Kudeatuz?

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2007-2011 Kudeaketa Planean jasota dagoen bezala, herritarren parte-hartzearen aldeko apustua egin du legegaldi hasieratik. Apustu horren baitan, hainbat lan-ildo jarri dira martxan eta horietako bat Kudeatuz programa da. Aldundiaren eta Eudelen arteko lankidetzaren egitasmoa da eta bi helburu ditu: batetik, herrietako gobernu sistemen inguruan hausnartzea, eta bestetik, herrietan herritarren partaidetza prozesuak bultzatzea, politika publikoetan inplikatzuz. Aurtengoa, 3. edizioa da eta Beasainek hartuko du parte Gipuzkoako beste bederatzirekin batera.

## “Gai baten inguruan, benetako diagnostikoa egin nahi badugu, ezinbestekoa da beasaindarren parte hartzea”

Aitor Aldasoro, Beasaingo alkateordea

Herritarren partaidetzari zer nolako garrantzia ematen dio Udalak?

Herriko errealitatearen benetako diagnostiko bat egin nahi badugu, ezinbestekoa da beasaindarren parte-hartzea bermatzea eta Kudeatuz programak horixe ahalbidetzen du. Herritarren txostenak osagarria izan behar du. Aldundiak hainbat partaidetza prozesu sustatu ditu jada eta esperientzia arrakastatsuak izan dira, hala nola, Azkoitia eta Zumarraga arteko errepide berriaren tratatuaren inguruan eman dena. Gure kasuan ere, ziur naiz aberasgarria izango dela.

Alkatea eta Eudene Egaña Foru administrazioaren diputatuak lankidetzara hitzarmena sinatzen.

# Kudeatuz, beasaindarren hitza aintzat hartuz

Kudeatuz herritarren partaidetza bultzatzeko programa bat da. Beasain egitasmoan parte hartzen hasi da jada. Horren isla da joan den uztaillean Foru Administrazioaren diputatu den Eudene Egaña eta Patxi Plazaola Beasaingo alkateak sinatu zuten lankidetzara hitzarmena. Kudeatuz 3. edizioa izango den honetan Beasaingo Udalak herritarren parte hartze prozesu bat abian jarriko du gai baten inguruan, hots, egun herrian aparkatzeko dauden arazoaren inguruan. Proiektu honen xedea irizpide batzuk ezarri eta jendearen ekarpenak epe luzerako kontutan hartzea da. Prospektiker aholkularitza enpresak Udalarekin lan egingo du Kudeatuz programaren lan ildoak zehaztu eta finkatzeko.



Prospektikerreko Mikel Irasuegi eta Olatz Errazkin, Hilario Urretabizkaia udaltzainburuarekin eta Aitor Aldasoro alkateordearekin.

### Zer dela eta aukeratu duzue aparkalekuen gaia?

Udalak azkenaldian mugikortasunarekin eta trafikoarekin zerikusia duten hainbat jarduerak gauzatu ditu, ordenazio aldaketak, biribilgune berriak, oinezkoentzat jarritako kaleak, e.a. Orain, aparkalekuen inguruko hausnarketa bat egin nahi dugu herritarrekin batera, diagnostiko bat lantzeko asmoz, herritar guztiei interesatzen zaien gai bat delako. Denoi eragiten digu.

## “Aparkalekuen inguruan baditugu datuak eta azterketak eginak, baina beste urrats bat eman nahi dugu” Hilario Urretabizkaia, Udaltzainburua

Udalak beti defendatu izan du nahikoa aparkaleku dagoela Beasainen. Zer irizten diozu?

Egia da Beasainen trafiko alorrean emandako aldaketa guztiak hausnarketa argi baten ondorio izan direla. Gauzak zentzuz egin dira, eta ez dago herrigunetik hain hurbil hainbeste aparkaleku duen beste heririk. Bernedon 351 plaza daude eta Gipuzkoa Plazan, 251. Baina noski, ibilgailu kopuruak ere gora egin du. Datu bat: 2004an, Beasainen 5.206 ibilgailu zeuden. 2008an, berriaz, 7.146. Aurretik lan itzela dugu eginga gai honen inguruan baina beste urrats bat eman nahi dugu ahuleziak eta sendotasunak aztertu, eta etorkizuneko arazoei aurre hartu ahal izateko.



[ Beasain ]  
egunez egunYa se han iniciado  
las obras para la  
construcción de 22  
VPO en Joan XXIII

Acaban de entregarse las llaves de 40 viviendas protegidas con sus correspondientes trasteros y garajes a otras tantas familias beasaindarras en Foru kalea.

Beasaindarrei merezitako eta prezio duina duten etxeak eskaintzeko xedez, hasi dira jada 22 etxebizitza egiteko lanak Joan XXIII kalean, Olan lantegiaren atzean, hain zuzen. Beasain Lantzen S.A. da promozioaren arduraduna eta UTE OBE-GISA-BIKANI S.L. enpresari esleitu zaizkio igeltserotza eta hormigoi lanak. Babes Ofizialeko etxebizitza horiek bi urteren buruan amaituko direla aurreikusten da. Etxebizitza, bere garaje eta trastelekua barne, esleipendun bakoitzari jabetzan emango zaio. Promozio publikoa izanik, etxebizitzak zozketa bidez esleitu dira. Aurreikus daitekeenez, abenduan etxebizitzak eskaera egiteko epea irekiko da.

**Requisitos de las solicitudes:**

- 1.- Estar inscrito en Etxebide como demandante de vivienda en régimen de compra. En lo referente a las condiciones económicas exigidas al día de hoy los ingresos anuales ponderados de las personas o unidades convivenciales no deberán ser inferiores a 9.000€ ni superiores a 35.000€. Para el cálculo de los ingresos se tendrá en cuenta la De-



Babestutako etxebizitzak kokatuko diren gunea. Behean fotomontajea.



claración de de la Renta del 2009. La información sobre Etxebide pueden tenerla en las entidades financieras o en Etxebide (Andia Kalea, 13 - 20004 Donostia; tel. 012; www.etxebide.info).

- 2.- Estar empadronado en el municipio de Beasain los dos últimos años de forma continuada o el equivalente en días a cinco años durante los diez últimos años.
- 3.- Carecer de vivienda en propiedad.

## Igartzia-Oletako aparkalekuen eraikitze prozesua hasi da jada

Lurpeko garajeak jabetza erregimenean eskuratzeko 158 eskabide aurkeztu dira jada. Horregatik, eskakizun portzentaia altua izaki, Beasain Lantzen S.A.-k aparkalekuen esleipenerako prozedura ireki du.

**140 plazas cerradas y 20 abiertas**

De forma aproximada, se contempla la construcción de 140 plazas cerradas y 20 plazas abiertas. El número exacto de plazas se fijará en el proyecto realizado por el equipo que resulte adjudicatario. Se han presentado 26 propuestas de equipos profesionales formados por arquitectos o ingenieros. Ya se ha analizado cada propuesta y estos días se adjudicará el proyecto. El equipo que resulte adjudicatario tendrá un plazo de 20 días para realizar el proyecto básico y de 30 días para realizar el proyecto de ejecución. Una vez realizado el proyecto básico, en el que se fijen el número exacto y características de las plazas resultantes, se realizará el sorteo para la adjudicación de plazas entre los inscritos en la lista de solicitantes. Se estima que este sorteo se realizará a lo largo del próximo mes de diciembre.

22 etxebizitza Bizigune programari  
atxikiko dira

bizigune

Alokairuko etxebizitzak sustatzeko xedez, Beasaingo Udalak Bizigune programaren aldeko apustua egin du. Eusko Jaurlaritzaren egitasmo horri esker 22 beasaindarrek beren etxebizitzak eskaini dizkiote Biziguner, etxebizitza horiek alokairuan jartze aldera. Horietatik 9 alokatu dituzte jada. Beste batzuk oraindik alokairuan jarri ahal izateko ez dituzte

baldintza egokiak betetzen eta, beste batzuk, aldiz, tramitazio prozesuan aurkitzen dira. Beasaingo Udalak Bizigune programarako bulego bat du irekita Iturrioz Kalea 7. zenbakian. Izapideak egiteaz gain, bertara gerturatzen direnek Bizigune programaren beharrezko informazioa jasoko dute.

10 locales comerciales  
ya han sido reconvertidos

Merkataritza-lokalak etxebizitza bihurtzea onartzen duen udal ordenantzari esker, dagoeneko 10 egin dituzte.

[ Beasain ]  
egunez egunEskuak  
batuta mundu  
hobea  
lortze aldera**Ageda Goitia**

"Urte asko daramatzat bolondres gisa lanean. Nire bizitzan garrantzi izugarria du. Espero dut nire urratsak jarraituko dituen norbait egotea; egia esan, gazte gutxi ikusten da boluntariotza munduan sartuta. Horregatik, jende-ari laguntzeko eskatuko nioke. Bertan gaudenok ahal dugun arte jarraituko dugu".



1

**Anttoni Arteaga**

"Bolondresa izatea oso aberasgarria da niretzat. Lehenengo egunetik gaur arte, ahal izan dudana ekimen guztietan hartu dut parte, gehien behar dutenei laguntzeko. Batzuetan gogorra da, baina besteei laguntzeagatik, edozer. Nire ahizpa ere boluntarioa da, gu bion bizitzan oso garrantzitsua da boluntariotza".



2

**Tere González**

"Aunque pongas un granito de arena en un desierto de pobreza, al menos es algo. Es una satisfacción tremenda formar parte de esto. En casa hemos inculcado a nuestros hijos valores como la solidaridad y el voluntariado. Uno de ellos, por ejemplo, nos ha ayudado más de una vez a traer de Donosti en coche el material a repartir en Beasain".



3

## Manos Unidas

Datorren urriaren 3an Boluntario Eguna egingo da Beasainen. Urtero lez, euren denbora librean besteei laguntzen ematen duten herritarren lana goretsi nahi da. Aurten, Esku Batuak elkartearen boluntario gisa horrenbeste urtez jardun duen talde beasaindarra omenduko dute. Gaur egun 6 pertsonak eskaintzen dute beren laguntza, hirugarren munduko jendearen bizimodua hobetzeko xedez. Gauza asko lortu dira, baina Anttoni, Tere eta Ageda bezalako pertsonen euren urratsak jarraitzeko eskatzen diete etorkizuneko belaunaldi. Laguntza txiki batek, askoren bizitza aldatu dezake eta.

Manos Unidas es una ONG católica, de voluntarios, que desde 1960 lucha contra la pobreza, el hambre, la malnutrición, la enfermedad, la falta de instrucción, el subdesarrollo y contra sus causas. Nació como una campaña puntual contra el hambre y a partir de 1978 adquirió plena personalidad jurídica, canónica y civil, como organización, pasando a denominarse "Manos Unidas". Para cumplir su objetivo financia proyectos de desarrollo en los países del Sur y realiza campañas de sensibilización en el Estado. En el caso de Beasain, ya hay quien lleva, desde que se gestó la asociación, ayudando a los más desfavorecidos e impulsando, a nivel territorial, proyectos de distinta índole en esos países. Anttoni Urteaga, Tere González y Ageda Goitia son tres de los seis voluntarios que actualmente trabajan y colaboran en aras a ayudar a culminar proyectos impulsados por Manos Unidas. "Nosotras pertenecíamos al Centro de Promoción de la Mujer de Beasain. Han pasado 45 años desde entonces. Antes éramos más, pero con el tiempo y por distintos factores, hoy seguimos unos pocos", comenta Ageda. Las tres voluntarias, que junto al resto del grupo serán homenajeadas el día del voluntariado el próximo 3 de octubre, coinciden en que Beasain es un municipio "solidario", ya que "así lo reflejan las muchas asociaciones existentes".

**Emakumearen gizarteratzea eta beste hainbat ekimen**

"Gipuzkoako Esku Batuak elkartearekin elkarlanean aritzen gara. Donostian dute egoitza eta bertan biltzen gara urte hasieran eta amaieran. Horrez gain, irailean eskolako materiala banatzen dugu ikastetxeetan. Halaber, otsaileko bigarren igandean dirua biltzen dugu", zehaztu du Terek. Elkartearen helburuetako bat gizarteraren emakumearen eginkizuna sustatzea da. "Eguno gizarteraren emakumearen garrantzia balioan jarri eta bultzatu nahi dugu". Hiru beasaindar hauek beren esker ona agertzen dute Esku Batuak elkartearen urte guzti hauek egin duten lana dela eta herrian egingo zaien omenaldia dela eta. "Boluntariotzako eguneko omenaldiak behar dutenei laguntzen jarraitzeko are eta motibazio gehiago emango digu". Beasaindar bolondres hauek "egunetik egunera eta ahal duten arte" eskuak batuta duten guztia emango dute mundu hobea lortze aldera.